


EUSKAL AEko ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA (EKI) 2011KO AZAROA

Euskal AEko eraikuntzaren kostuek ez dute aldaketarik izan (% 0,0) 2011ko azaroan, aurreko hilaren aldean

Azken hamabi hilabeteetan (2010eko azarotik 2011ko azarora) eraikuntzaren kostuak % 1,8 igo dira.

Euskal AEko Eraikuntzaren Kostuen Indizea: EUSTATen datuen arabera, Euskal AEn eraikuntzako kostuen indizeak ez du aldaketarik izan (% 0,0) 2011ko azaroan, aurreko hilabetearen aldean; baina hilabete horretako urte arteko tasa % 1,8 igo da.

Abenduko urte arteko aldakuntza-tasak, 2006-2011



(*) Gehikuntza azaroko urte artekoa da
Iturria: EUSTAT. Euskal AEko eraikuntzaren Kostuen Indizea

Aurreko hilabetearekin alderatuta, 2011ko azaroan eskulanaren kostuak eta lehengaien kostuak ez dute aldaketarik izan (% 0,0).

Eraikuntza eta Obra Zibila azpisektoreetako lehengaien kostuek bilakaera ezberdina izan dute azaroan: Eraikuntzakoak % 0,1 jaitsi dira, eta Obra Zibilekoak % 0,3 egin dute gora, aurreko hilabetearekin erkatuta. Bi azpisektore horien urte arteko bilakaera aztertuta ikusten da Eraikuntzako lehengaien kostuek % 1,3 egin dutela gora, eta Obra Zibilekoek ere gora egin dutela, % 4,7.

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handiena izan dutenak, besteak beste, Petrolioaren birfinketa (% 23,7), Energia elektrikoa, gasa eta lurruna (% 23,3) eta Industria kimikoa (% 7,7) izan dira. Baina ondoren ematen direnetan lehengaien prezioek urte batetik bestera

(2010eko azarotik 2011ko azarora) behera egin dute edo igoera txikiagoa izan dute: Erauzteko industriak (% -1,4), Metalikoak ez diren beste produktu mineral batzuen fabrikazioa (% 0,8) eta Altzarien fabrikazioa eta manufakturen beste industria batzuk (% 1,3).

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE. 2011KO AZAROA. BEHIN-BEHINEKO DATUAK

GOIBURUAK	INDIZEA 2005 = 100 Oinarria	ALDEAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	119,8	0,0	1,8	1,2
ERAIKINAK	118,7	-0,1	1,3	0,8
OBRA ZIBILA	123,9	0,2	3,8	2,5
LEHENGAIEN KOSTUA	119,0	0,0	2,0	1,1
ERAIKINAK	117,7	-0,1	1,3	0,6
OBRA ZIBILA	124,2	0,3	4,7	2,9
LAN-ESKUAREN KOSTUA	122,9	0,0	1,5	1,5

Iturria: EUSTAT. Euskal Aeko eraikuntzaren kostuen indizea

Argibide gehiago:

[Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945-01 75 00 Faxe: +34-945-01 75 01 Helbide elektronikoa: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel.: +34-945-01 75 06 Faxe: +34-945-01 75 01

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago.

Euskal AEko Eraikuntzako Kostuen Indizeari buruzko datu-bankua.